



DEIALDIA:

Ikasketa-programa - Jarduera Artistikoen Institutua (JAI)

1. AURKEZPENA

Jardun Artistikoentzako Institutuaren (JAI) ikasketa-programa Tabakalerak (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa) eta Artium Museoa (Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa) bultzatutako ekimen gisa sortu da. Ekimen horri aurten Jorge Oteiza Fundazio Museoa gehitzen zaio. Hiru horiek dira programaren Donostiako, Vitoria-Gasteizko eta Altxuzako egoitzak, hurrenez hurren. Programa horrek Euskal Herrian errotutako arte garaikidearen esparruan ezagutzak transmititzeko tradizio berezia aitortzen du, aurrekontu esperimentalen testuinguruan sortu diren hainbat proiektu pedagogikoren bidez.

Besteak beste, testuinguru horrek berekin dakartza, alde batetik, artearen funtzio sozialari buruzko eztabaidarako jarrera eta, bestetik, artearen praktika materialari buruzko etengabeko elkarrizketa.

Aurrekari hauetatik abiatuz, JAI udako eskola gisa aurkezten da, elkartruke horiek garatzeko gune/espazio bat ezartzeko bokazioarekin. Hori horrela, programak jatorri oso ezberdineko ahots profesionalen ekartzen ditu, praktika artistikoak mundu garaikideari begiratzeko duen ahalmena identifikatzeko eta haien lengoaien erabilerari buruzko harreman kritikoa ezartzeko gai direnak.

Jakinik artera iristeko beste modu batzuk aldarrikatzeak berekin dakarrela ezagutza-modu ugari arreta jartzea, eta, inolako bokaziorik gabe gaitasunak pilatzeagatik edo espezializazioaren baten aitzindaritzan bilatzeagatik, ikasketa-programa honen helburua prozesu eta metodologia artistikoetan formaren eta edukiaren, subjektibotasunaren eta materialtasunaren, eta pertzepzioaren eta pentsamenduaren artean sortzen diren harremanei balioa ematea da.

Premisa sistematiko bati jarraituz definitzen dira JAiko irakasleak: proiektua sustatzen duten erakundeek beren erakusketa-programetan parte hartzen duten artistei JAI programan irakasle izateko egiten dieten gonbidapena. Erabaki hori esparru instituzional batean gertatzen diren harreman profesionalak testuinguru hurbilera zabaltzeko nahitik sortu da, eta, hori egitean, ezagutzaren ekoizpenean eta transmisioan sakondu nahi izan da, euskal testuinguruko

artisten eta nazioartean dabilzan beste batzuen arteko trukerako espazio bat eraikiz.

Premisa horietatik abiatuta, irakasle izateko gonbidatutako pertsona bakoitzari egindako galdera beraren inguruan egituratzen da JAI: **zure lan-prozesua definitzen duen zein ezagutza praktikoa zara gai beste pertsona batzuei transmititzeko?**

Bizi dugun egoera berezi honetan, ezinbestekoa da galdera hori egitea, gonbidatu bakoitzaren ohiko jardunaz harago, lan egiteko eta partekatze baldintzen eraldaketari lotuta

Galdera horren erantzunak metodología jakin bat onartzen du kasu bakoitzean, eta erantzun horien baturak, ariketa, tailer edo *ad hoc* proposatutako beste topaketa batzuen bidez, eskolan garatzen den programa pedagogikoa osatzen du.

Asteko saio horiez gain, JAI tailerreko gune bat da, ikaskuntza artistikoaren alderdi berezi eta zehatzak jorratzeko, eta tailerrean ematen diren prozesuen garrantzia azpimarratzen duen metodologia esperimentalaz aztertzen du

2.XEDEA

Ikasketa-programa baliabide bat da, zeinak aukera ematen duen jarduera artistikoari, hizkuntzetarako beste sarbide batzuk errazteko duen gaitasunari eta horiek sortzen dituzten subjektibazio-formei buruzko elkarrizketak zabaltzeko.

Planteatutako mekanika programaren parte den artista bakoitzak prozesu horien ikuspegi berezia eskaini dezan eragiteko diseinatuta dago, eta horrek tailerraren espazioan ehuntzen diren harremanek eta irakasleek une eta egoera bakoitzean garatzen dituzten praktika zehatzek zeharkatzen duten metodologia eraikitzen du.

Egiteko modu honen helburua da parte-hartzaileen proposamenen eta lanen garapen kritikoa sustatzea. Ildo horretan, proposamenak azpimarratzen du garrantzitsua dela parte-hartzaile bakoitzari esleituko zaion tailerrean egin beharreko lana. Partekatutako espazioa izango da, eta programako tutoreek tutoretza indibiduala egingo dute.

3. NORI ZUZENDUTA DAGOEN

Artearen metodologietan sakontzeko interesa duten artistei edo sektoreko eragileei zuzendua.

4. PARTE HARTZEA ETA IZEN EMATEA

JAiren tutoreak Itziar Okariz, Asier Mendizabal eta Ibon Aranberri izango dira eta Tabakalera KGNZ, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Artium Museoa eta Jorge Oteiza Fundazioko ordezkariekin osatuko komitea izango da tailerrerako gehienez **16 parte-hartzaile** hautatuko dituztenak. Deialdia zabalik egongo da **2022ko martxoaren 17tik apirilaren 14ra. Maiatzaren 2an** jakinaraziko zaie hautagaiei hautatuak izan diren ala ez.

Honela osatzen da **JAiren batzordea**:

Tutoreak: Ibon Aranberri, Asier Mendizabal, Itziar Okariz.

Irakasleak: Rosalind Nashashibi, Georgia Sagri, Lea Porsager, David Bestué, Ainara Elgoibar, Alejandro Cesarco, Ibon Aranberri, Jon Mikel Euba, Asier Mendizabal, Itziar Okariz, Mattin, Pierre Bal-Blanc, Isabel Herguera, Erlea Maneros eta Txaro Arrazola.

Ikasketa Batzordea: Ibon Aranberri (artista), Asier Mendizabal (artista eta irakaslea Royal Institute of Art of Stockholm erakundean), Itziar Okariz (artista), Oier Etxeberria (Tabakalera KGNZko programa publikoen arduradun eta komisarioa) eta Catalina Lozano (Artium museoko komisario-burua).

Programaren koordinazioa: Olatz Otalora, Laida Mendia (Tabakalera KGNZ); Charo Garaigorta (Artium Museoa)

Antolatzaileak: Tabakalera KGNZ, Donostia; Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Artium Museoa, Gasteiz; Jorge Oteiza Fundazio Museoa, Altzuza.

5. MATRIKULA ETA LAGUNTZAK

Hautatutako pertsonak **450 €** ordainduko dituzte prestakuntzarako matrikula gisa.

A Modalitatea bakarra.

Matrikula, ostatu hartzeko aukerarik gabe: 450€.

B Laguntzak: JAI, Jarduera Artistikoen Institutuak bost ikasketa-laguntza esleitu ahal izango ditu deialdi honen barruan. Laguntza horien helburua Tabakalerako One Shot House hoteleko ostatuaren kostua JAI programak iraungo duen hiru hilabeteetan 600 €-ra murriztea izango da. Hala eskatzen duten ikasleen artean bost laguntza esleituko dira.

Tabakalerak euren esku jartzen dituen geletako batean hartuko dute ostatua: gela indibidual bikoitza, bainugela pribatuarekin eta sukalde eta egongela partekatuetarako sarbidearekin. Logela horien prezioa 600€koa da, eta partaideak ordainduko du bere osotasunean. Horretarako, derrigorrezkoa izango da JAik irauten duen hiru hilabeteetan ostatu hartzeko konpromisoa hartzea.

Laguntza hauen esleipena JAI komiteak egingo du, eskatzaileen ibilbide artistikoaren eta egoera sozioekonomikoaren arabera. Bost laguntza horietako bat eskuratu nahi dutenek berariaz adierazi beharko dute parte hartzeko dossierrean, ebaluatzeko egokitzat jotzen duten dokumentazioa bertan adieraziz.

6. LEKUA ETA IRAUPENA

Programaren saioak Tabakalerako Artisten Guneko Tailerrean izango dira, **Ekainaren 1etik abuztuaren 31era bitartean**. Eremu komun horretarako sarbidez gain, parte-hartzaile bakoitzak estudio bat ere izango du prestakuntza aldiak irauten duen bitartean.

Abuztuan zehar Alzuza herrian egun batzuk igarotzea aurreikusten da, Jorge Oteiza Fundazio Museoaren ekarpenaren barruan. Gainera, Artium Museoa ere zenbait jarduera egingo dira. Ikasleek ez dute gastu gehigarririk izango joan-etorri horiek tarteko.

7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Izen emateak formazio osora joateko eta Tabakalerako ekipamendu eta instalazioen erabilpen arauak errespetatzeko konpromezua dakar berarekin. Tailerraren denbora eta espazio erabilpena honen helburuentzat erabiliko da soilik, ez bestelako proiektuak gauzatzeko.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. CV eta biografia.
2. Motibazio-gutuna.
3. Aurreko lanen dossier digitala .
4. Parte hartzeko matrikula-modalitatearen adierazpena eta, hala badagokio, beka-eskaera.

Dokumentazio guztia online erantsi beharko da pdf dokumentu bakar batean, gehienez ere 10Mb-ko pisuarekin.

Izena emateko epea **2022ko martxoaren 17ko 00:00tik apirilaren 14ko 23:59ak [UTC+1]** arte egongo da zabalik. Deialdien emaitza, **2022ko maiatzaren 2an** jakinaraziko da. Hautagaiak astebeteko epea izango du egonaldiaren onarpena egiteko.

9. DATUAK BABESTEA

Hautagaiak emandako datu pertsonalak izen-ematea eta aurrerantzean Tabakalerari izen-emate beraren exekuzio esparruan emandakoak ere (adibidez: izena eta abizena, NAN zenbakia, helbidea, posta elektronikoko kontua, banku-datuak eta abar), Tabakalerak tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun gisa, izen-emateraren exekuzio egokia errazteko helburu bakarrarekin.

Tabakalerak datu pertsonalak gordeko ditu denboran zehar izen-ematea behar bezala egiteko behar-beharrezkoa den heinean, eta, beharrezkoa denean, adierazitako kontserbazio-epe gehigarrian legezko betebeharrak betetzeko bete behar badu ere.

Hautagaiak eskubidea izango du (i) bere datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, bai eta tratamendua, haien eramangarritasuna edo tratamenduaren aurka egitea. Hala dagokionean, helbide elektronikoko honetara bidali behar da: pribatutasuna@tabakalera.eu; eta (ii) erreklamazioa aurkeztea Espainiako datu babeserako bulegoaren aurrean edo beste edozein kontrol-agintaritza eskudunaen aurrean, bereziki eskubideak baliatzeko gogobetetzetik lortu ez denean.



10. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek Tabakalerako guneetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak, eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenentarako erabiltzearen; era berean, erabilera hori baimenduko dute. Hori guztia ohorerako eskubideen aurkako erabilera edo aplikazio oro alde batera utzita. Partaideek aukeratutako irudiak bistaratzea eskatu ahal izango dute argitaratu aurretik.

11. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte-hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +:

pgaraikideak@tabakalera.eus

+34.943011311

www.tabakalera.eus